

## San Pankrazio eguna 2016

2016/05/12

Aurten ere, San Pankrazio egunean, Goi Eskola Politeknikoaren zaindariaren egunean, ohiko Arrautza Jaurtiketako Industria Diseinuko Lehiaketa egin da. Gainera, beste lehiaketa bat ere egin da, Informatikako eta Telekomunikazioetako ikasleei zuzenduta: bideo-jokoak diseinatu eta garatzekoa, hain zuzen.

### Arrautza-jaurtiketa

Arrautza jaurtitzean ongien babesten duen tramankulua egiten duten ikasle eta irakasleen lana saritzen da Industria Diseinuko Arrautza Jaurtiketari buruzko Lehiaketan. Horrek helburu bikoitza du: batetik, parte-hartzaileen ahalmen zientifiko-teknikoak ebaluatzea eta, bestetik, lehiaketaren bitartez, ikasleen artean motibazioa sustatzea.

Irabazleak izan dira arrautza apurtu gabe, Liburutegiko eraikineko hirugarren pisuko leiho batetik, 15 metroko altueratik, botatzea lortu duten parte-hartzaileak. Beraien tramankulua diseinatzeko, parte-hartzaileek tamaina ertaineko oilo-arrautza bat, kartoi mehea, soka eta ukipen-kola erabili dituzte. Lehiaketan 55 pertsonak hartu dute parte, lauko edo bosteko 18 taldeetan banatuta.

Unibertsitateak ikasleen diseinuak hiru kategoriatan saritu ditu: distantzia, diseinua eta hegaldia.

- **Hegaldirik luzeena**
  - Taldearen izena: Calimero
  - Parte-hartzaileak: Neia Isidro, Leire Pardo eta Nerea Galdós
- **Hegaldirik politena**
  - Taldearen izena: Con un par
  - Parte-hartzaileak: Miren Etxezarrete, Nerea Molano eta Marina González
- **Diseinurik onena**
  - Taldearen izena: Urrezko globoa
  - Parte-hartzaileak: Maddi Bueno, Joanes Unzueta eta Laiene Pagazurtundua

### Bideo-jokoan lehiaketa

Bestalde, Telekomunikazio eta Informatikako lehen mailako ikasleek Programazioko eta Fisikako irakasgaietan oinarritutako bideo-jokoak garatu dituzte. Kasu horretan, epaimahaiak eta epaileek alderdi grafikoak, jokatzeko erraztasuna eta abar hartu dituzte aintzat lehiaketako irabazlea hautatzeko.

